

Aisialdiko plana lagunekin

–Kaixo, kuadrilla! Plan ederra prestatu dizuegu astebururako. Eguraldi ona egingo du: oskarbi egongo da, eta ez du batere hotzik egingo. Larunbat goizean, abentura-parke batera eramango zaituztegu Mendexara. Goizeko zortzietan, furgoneta batek jasoko gaitu herriko plazan eta Mendexaraino eramango gaitu. Oso goiz da, baina bederatzi eta erdietarako han egon behar dugu hamarretan hasteko. Eguerdira arte egongo gara abentura parkean. Han hainbat zirkuitu daude tirolinekin, Tibeteko zubiekin, lianekin... Zer ondo pasatuko dugun!

–Bazkaltzeko, etxetik eramango ditugu ogitartekoak, eta parkean bertan jango ditugu. Lasai, guk prestatuko dizkizuegu. Arratsaldean, Lekeitiora joango gara eta barku bat hartuko dugu. Abentura parkekoek eramango gaituzte autobus txiki batean. Itsasontzia Lekeitioko portutik irteten da. Lehenengo, Elantxobe herri aldapatsu eta xarmangarria ikustera eramango gaituzte, eta, Ogoñoiko lurmuturra ikusi ondoren, ibilbideari amaiera emateko, Izaroko irlaraino hurbilduko gaituzte.

–Etxera iristen garenean, dutxa bat hartu eta afaldu egingo dugu, eta, eguna ondo bukatzeko, *Skabidean* taldearen kontzertura gonbidatuko zaituztegu. Zer egun ederra pasatuko dugun! Zer iruditzen zaizue?